

Oliba olioaren etiketatua

Oliba-olioaren kontsumoa oso ohikoa da Europar Batasuneko mediterraneoko herrialdeetan eta gero eta gehiago estimatzen ari da gainerako herrialdeetan. Europako Batzordeak 1019/2002 Erregelamendua onartu zuen, oliba-olioa merkaturatzeko arauari buruzkoa, Europako merkaturan dagoen oliba-olioaren benekotasuna bermatzeko eta etiketatuari buruzko berriarazko arauak finkatzeko. Ezinbestekoa da finkatzea zehatz mehatz zein den olioaren kategorია, kontsumitzaileek informazio gehiago izan dezaten produktu hori erosteko orduan.

Kategoria

Honako informazio hau ere agertu beharko da argi eta garbi eta ez ezabatzeko moduan, saltzeko izenez gain:

▪ Oliba-olio birjina estra: *“Goi-mailako kategoriako oliba-olioa, zuzenean olibetatik eta soilik bide mekanikoekin aterea”*.

▪ Oliba-olio birjina: *“Zuzenean olibetatik eta soilik bide mekanikoekin ateratako oliba-olioa”*.

▪ Oliba-olioa: Bakarrik dauzka oliba-olio finduak eta birginak. *“Fintze tratamenduan jarri diren oliba-olioak eta zuzenean olibetatik ateratako olioak bakarrik dauzkan olio”*.

▪ Oliba-patsaren olio: *“Oliba-olioa atera ondoko produktuaren tratamendutik eta zuzenean olibetatik ateratako olioak bakarrik dauzkan olio”* edo *“olibapatsaren tratamendutik eta zuzenean olibetatik ateratako olioak bakarrik dauzkan olio”*.

Jatorria

Jatorriaren izena, izen geografiko baten bidez, bakarrik agertu ahalko da oliba-olio birjina estran eta oliba-olio birjinan. Deitura hori jarri ahalko da lurralde mailan jatorrizko izendapena edo adierazpen geografiko babestua daukaten produktuetan. Gainerako kasuetan, izendapen hori izango da estatu kide bat, erkidegoa edo hirugarren herrialde bat jartzea.

www.kontsumobide.eus



Irekitzeko sistema

Irekitzeko sistema desegin egingo da behin irekiz gero.

Borondatezko oharrak

▪ *“Lehenengo presioa hotzean”* oharra: Bakarrik agertu ahal izango da 27° C baino gutxiagotan oliba patsaren lehenengo prentsaketa mekanikoaren bidez lortutako oliba-olio birjinan edo oliba-olio birjina estran.

▪ *“Hotzean aterea”* oharra: Agertu ahal izango da 27° C baino gutxiagotan oliba patsa iragazte edo zentrifugatuz lortutako oliba-olio birjinan edo oliba-olio birjina estran.

▪ Ezaugarri organoleptikoak (aroma, zaporea...) adierazteko oharra: Agertu ahal izango da 2568/91 CEE Erregelamenduan aurreikusitako analisi metodoetako emaitzaren batean oinarritzen bada. Ohar hori aplikagarri izango da 2006ko uztailaren letik aurrera 2004ko urriaren 8ko 1750/2004 CE Erregelamenduren arabera.

▪ Azidotetasuna edo gehienezko azidotetasuna adierazteko oharra: Bakar-bakarrik agertu ahalko da tamaina bereko hizkietan eta ikusteko toki berean agertzen badira peroxido indizea, ezko kopurua eta xurgagarritasuna ultramorean, aipatutako 2568/91 CEE Erregelamenduren arabera.

Edukiera

Ontziak bost litroko edukiera izango du gehienez.